

SAGARDOA DROGA BAT DA ETA HERNANI...

HERNANIKO ASKAGINTZA, Droga-mendekotasunen fenomenoaren normalizazioaren aldeko herri ekimenak ondokoa salatu nahi du:

- 1- Droga ezberdinen kontsumoak geroz eta zabalduagoak eta konbultsiboagoak dira, kontsumitzen hasteko adina jaisten ari da eta arriskuaren pertzepzioa oso baxua da.
- 2- Kontsumo horietako batzuk oso negatiboak diren ondorioak eragiten ari dira, patologia dualak (mendekotasuna eta gaixotasun mentalak nahasiak) eta ondoeza eta norberaren askatasunean mugak jasaten dituzten pertsonen kopurua geroz eta handiagoa delarik.
- 3- Testuinguru sozialak eta kulturalak gero eta prekarioagoak, kontsumistagoak, indibidualistagoak...dira, marjinazioa, familiaren, gizartearen eta komunitatearen desegituraketa errealitateak ere maiz azaltzen direlarik.
- 4- Asteburuetan, festa orokorretan eta sagardo denboraldian bereziki hernaniarrek beraien zenbait eskubide galtzen dituzte eta euren askatasunaren alderdi batzuk ukituak gelditzen dira.
- 5- Dagoen hipokresia eta guztiontzat zein motatako herria eraiki nahi dugun zehaztu ez dugunez, gazteentzat oso positiboak ez diren aisialdi eredu batzuk sortzen ari dira.
- 6- Ikuspegi normalizatzailea eta ez debekatzailea abiapuntutzat hartuz, Osasun Heziketan eta Droga-mendekotasunen prebentzioan aritzea, borroka malkartsua suertatzen da askotan interes ekonomikoekin eta politikoekin aurrez aurre topo egiten delako.
- 7- Droga kontsumoen alderdi kulturala galtzen ari denez, "sagardotegietara joatea" ere masifikatutako, homogeneizatutako eta kulturarekin erlaziorik ez duen zerbaitetan bihurtzen ari da. Argi esan nahi dugu Askagintza ez dagoela ez sagardoaren ezta sagardotegien kontra ere. Kulturarekin erlazio handiagoa duen sagardo eta sagardotegien erabilera egitearen alde gaudela proposatu nahi dugu bakarrik.
- 8- Hernani, definiturik gabeko herria, bertako partaide izatearen zentzua galtzen ari dena, komunitate identitaterik gabea, bere elkarteen, tailerren, ostalari txikien, bizilagunen...inplikaziorik gabekoa, industria poligonoz, zentro komertzialez, lotarako auzoez eta atzerritarrei edo turistei erakusteko "bertako" baserriez inguratutako "sagardortegi" batetan bihurtzeko arriskua du.

ASKAGINTZA hernaniarrez osatutako taldea da, gure herria estimatzen dugu, Hernani duina izatea nahi dugu eta ongi pasatzen jakiteaz gain borroka egiten ere saiatu nahi dugu.

ALBERTA ARSUAGA
GAROA GARTZIANDIA
LEIRE ZUMETA
MARIAN MENDIOLA
TXUS CONGIL
OIHANA IRURETAGOiena